


Euskal AEko eskualde guztietan hobetu egin da okupazio-tasa 2022an

10 landunetik ia 4k bizitoki duten udalerrian egiten dute lan

2022ko urtarilaren 1ean, Euskal AEn bizi diren 16 urteko eta gehiagoko biztanleen okupazio-tasa % 51,3 izan da; alegia, ehuneko 1,6 puntu egin du gora, 2021arekin alderatuta, Eustaten datuen arabera. Eskualde-mailan, eskualde guztiek izan dituzte hobekuntza esanguratsuak aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Gorbeialdea da okupazio-tasarik altuena duen eskualdea, % 57,4; ehuneko 1,7 puntu igo da, 2021aren aldean. Ondoren, Plentzia-Mungia ageri da, % 55,9ko tasarekin, ehuneko 1,4 puntu egin baitu gora aurreko urtearekin alderatuta. Hirugarrenik, Urola Kosta dago, % 55,8rekin; ehuneko 2 puntu egin du gora.


Euskal AEn bizi diren 16 urte eta gehiagoko biztanleen okupazio-tasaren bilakera (%). 2021-2022



Iturria: Eustat. Aktibitatearen udal estatistika

Udalerrien arabera, eta haien tamaina kontuan hartuta, 5.000 biztanletik beherakoek batez beste okupazio-tasa altua (% 54,3) dute. Talde horretan tasa nabarmen altuak dituzten udalerriak daude, hala nola Orendain (% 68,3), Irura (% 66,9) eta Aduna (% 65,7), bai eta okupazio-tasa baxuenak dituzten udalerriak ere, hala nola Elantxobe (% 41,4), Lanestosa (% 41,7), Sukarrieta (% 42,3) eta Harana eta Ekora (biek % 42,7).

16 urteko eta gehiagoko biztanleen okupazio-tasaren bilakaera, udalerri tamainaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Aktibitatearen udal estatistika

Hurrengo udalerri-estraturan (5.000 eta 10.000 biztanle artean), batez besteko okupazio-tasa % 53,2 izan da. Goiko muturrean Astigarraga eta Urduliz nabarmentzen dira (% 68,3 eta % 60,7, hurrenez hurren). Beheko muturrean, Balmaseda (% 46,6), Lekeitio (% 46,9) eta Ondarroa (% 47,5) daude.

10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko udalerrien estraturan, batez besteko okupazio-tasa % 52,6 da; Etxebarri nabarmentzen da % 62rekin, eta, ondoren, Sopela % 58,2rekin. Hurrengo estraturan (40.000 biztanle baino gehiago eta 100.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerriak), Errenterriak du okupazio-tasarik altuena (% 52,1); ondoren, Irunek (% 50,5) eta, gero, Barakaldok (% 50,4). Estratu horren batezbestekoa % 48,6 da.

Azkenik, hiriburuei dagokienez, Gasteizek du okupazio-tasarik altuena (% 52,7). Donostia dago ondoren, ehuneko 1,5 puntuko aldearekin (% 51), eta Bilbo hirugarren posizioan, % 48,2ko okupazio-tasarekin.

10 landunetik ia 4k bizitoki duten udalerrian egiten dute lan

Euskal AEn landunen % 38,5ek bizitoki duten udalerrian lan egiten dute. Proportzio hori handiagoa da Araban, 10 landunetik 7 baitira (% 69,3), eta txikiagoa Gipuzkoan, bizitoki duten udalerrian 10 landunetik 4k egiten baitute lan (% 36,7), eta Bizkaian, 10etik 3 baitira (% 30,5). Bestalde, landunen % 51,3k beste udalerri batean egiten dute lan beren lurralde historikoaren barruan. Proportzio horiek % 60,1 eta % 54,1 dira Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren. Araban, biztanle landunen % 16 baino ez.

Hamar landunetik seik baino ez dute goi-prestakuntza

Amaitutako prestakuntza-mailak informazioa gehitzen dio okupazioari eta langabeziari buruzko analisiari. Gaur egun, landunen % 60,2k goi-prestakuntza dute; haren barruan sartzen dira goi-mailako lanbide-heziketa dutenak (% 20,6) eta unibertsitate-hezkuntza dutenak (% 39,6). Langabeetan, hezkuntza-maila hori % 37,5i dagokio: goi-mailako lanbide-heziketa dutenak % 16,5 dira, eta unibertsitate-hezkuntza dutenak % 21. Bestalde, langabeen % 39,1ek lehen mailako ikasketak baino ez dituzte edo ez dute titulaziorik; ehuneko hori askoz ere txikiagoa da landunen artean: % 19,6.

Euskal AEko biztanleria landunaren eta langabearen artean lortutako prestakuntza-maila, sexuari jarraiki (%). 2022

	Biztanleria landuna			-Biztanleria langabea		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
A. Bigarren eta beheko hezkuntzako lehen etapa (0-2 maila)	19,6	16,8	21,2	39,1	40,5	38,0
0. Lehen hezkuntza baino gutxiago	0,4	0,3	0,3	1,6	1,5	1,7
1. Lehen hezkuntza	2,2	2,0	3,8	6,3	5,6	6,8
2. Behe-mailako bigarren hezkuntza: DBHra arte eta balioideak	17,0	14,5	17,1	31,2	33,4	29,5
B. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta goi mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondokoa (3-4 maila)	20,2	18,7	22,0	23,4	23,8	23,0
3. Goi Mailako Bigarren Hezkuntza: Batxilergoa, Lanbide Heziketa, erdi-mailako zikloa eta balioideak	19,6	18,0	21,5	22,6	23,2	22,1
4. Hirugarren mailakoa ez den bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza: 3. mailako lanbide-ziurtagiriak eta balioideak	0,6	0,7	0,5	0,8	0,6	0,9
Goi-mailako ikasketak (doktoregoa barne) (5-8 maila)	60,2	64,5	56,8	37,5	35,7	39,0
5. Lanbide-heziketako goi-mailako zikloaren eta balioideen jarduerak	20,6	17,2	20,2	16,5	17,2	16,0
6. Unibertsitate-ikasketak, diplomaturak eta balioideak	13,6	17,3	13,0	7,8	6,3	9,1
7. Lizentziaturak, gradu bikoitzak eta masterrak	24,3	28,1	22,1	12,5	11,5	13,3
8. Doktorego-bartela edo balioidea	1,7	1,9	1,5	0,7	0,7	0,6

Data 2023ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Akitibitatearen udal estatistika

Lanari eta langabeziari dagozkien aldeak sexuaren arabera aztertzean ikusten da gizon landunen artean % 64,5ek goi-mailako hezkuntza dutela; ehuneko hori txikiagoa da emakumeen artean: % 56,8. Langabeen artean, emakumeen % 39k goi-mailako hezkuntza dute; proportzio hori txikiagoa da egoera berean dauden gizonen artean: % 35,7.

197 udalerrian langabezia-tasa batezbestekoa baino txikiagoa da, eta 7tan % 3tik beherakoa

16 urteko eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasak behera egin du eskualde guztietan 2021aren eta 2022aren artean. Arlo horietako hamabostetan langabezia-tasak baxuagoak dira batezbestekoa baino, hura % 9,7 baita; alegia, ehuneko 1,7 puntu jaitsi da aurreko urtearekin alderatuta. Langabezia-tasa baxuagatik honako hauek

nabarmentzen dira: Urola Kosta (% 6,8); Gorbeialdea (% 6,9), eta Arabako Mendialdea eta Debagoiena (% 7 bi kasuetan). Bestalde, langabezia-tasa altuenak Enkarterrin eta Bilbo Handian izan dira (% 11,9 eta % 11,5, hurrenez hurren).

Euskal AEko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasa, lurralde-eremuen eta sexuaren arabera (%). 2022

	Biztanleria langabea			2022-2021
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	
Euskal AE	9,7	8,4	11,1	-1,7
Lurralde historikoak				
Araba/Álava	9,8	8,1	11,6	-2,1
Bizkaia	10,9	9,7	12,1	-1,5
Gipuzkoa	7,9	6,6	9,1	-1,6
Eskualdeak				
Urola-Kostaldea / Urola Costa	6,8	5,5	8,1	-2,0
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	6,9	6,1	7,9	-1,4
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	7,0	6,2	8,1	-1,5
Debagoiena / Alto Deba	7,0	6,0	8,1	-1,4
Tolosaldea / Tolosa	7,1	5,9	8,5	-1,4
Gorri	7,3	5,6	9,3	-1,4
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	7,8	7,0	8,6	-1,7
Markina-Ondarroa	8,2	7,8	8,7	-2,9
Durangaldea / Duranguesado	8,4	6,6	10,4	-1,7
Plentzia-Mungia	8,5	7,9	9,2	-1,8
Añana	8,7	7,5	10,3	-2,5
Debabarrena / Bajo Deba	9,1	7,0	11,4	-1,6
Arratia Nerbioi / Arratia-Nervión	9,4	8,5	10,5	-1,4
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	9,5	7,4	11,7	-2,5
Gernika-Bermio	9,6	9,1	10,1	-2,0
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	10,0	8,3	11,7	-2,0
Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa	10,0	8,1	11,9	-1,8
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	10,0	7,6	13,2	-3,5
Bilbo Handia / Gran Bilbao	11,5	10,3	12,7	-1,4
Enkartzioak / Encartaciones	11,9	9,6	14,4	-1,2

Data 2023ko Urriaren 18a

Iturria: Eustat. Akitibitatearen udal estatistika

Udalerrien tamainari dagokionez, ikusten da langabezia-tasa biztanle kopuru txikiena duten udalerrien estratuetan dela baxuena. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien taldea nabarmentzen da, % 8,1eko langabezia-tasarekin. Ondoren, 10.000 eta 40.000 biztanle bitarteko estratua dago (% 8,7), eta ehuneko puntu hamarren bat gehiagorekin 5.000 eta 10.000 biztanle bitarteko Euskal AEko udalerriak (% 8,8ko langabezia-tasa). % 11,3ko tasarekin 40.000 eta 100.000 biztanle bitarteko estratua dago, autonomia-erkidegoko batez besteko langabezia-tasaren gainetik.

Hiriburuei dagokienez, Donostiak du langabezia-tasa baxuena (% 7,7), eta Gasteizek eta Bilbok autonomia-erkidegoko batezbestekoaren gaineko langabezia-tasak dituzte (% 10,1 eta % 12,5, hurrenez hurren).

Guztira 197 udalerrik batezbestekoaren (% 9,7) azpitik dagoen langabezia-tasa dute; alegia, udalerrien % 78k. Muturretan, 7 udalerrik % 3tik beherako langabezia-tasa dute; honako hauek, txikienetik handienara antolatuta: Gaintza, Zerain, Aduna, Albiztur, Kripan, Garai eta Altzaga. Denak ere biztanle kopuru txikieneko estratukoak dira (5.000 biztanle artekoak). Beste muturrean, 8 udalerritan langabezia-tasa % 13 baino handiagoa da (tasa handienetik txikienera antolatuta): Sestao, Balmaseda, Lanestosa, Oion, Sukarrieta, Santurtzi, Elantxobe eta Ortuella.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62